



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

## **H AUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2013/2014 ikasturtea**

### **INTELIGENTZIA ANITZA HOWARD GARDNER-RENGAN**

**Egilea: Aritz Herrero Otxoa**

**Zuzendaria: Jon Etxebarria Arraeta**

**Leioan, 2014ko ekainaren 15ean**

© 2014, Aritz Herrero

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

## AURKIBIDEA

|  |           |
|--|-----------|
| <b>Sarrera</b> .....   | <b>4</b>  |
| <b>1.- Marko teoriko kontzeptuala: Adimen Anitzen teoria</b> .....   | <b>6</b>  |
| 1.1.- Teoriaren jatorria .....   | 6         |
| 1.2.- Zer da adimena? .....  | 6         |
| 1.3.- Adimen Anitzen teoriaren ezaugarriak.....  | 9         |
| 1.4.- Hezkuntzari egindako ekarpenak .....   | 13        |
| <b>2.- Metodologia</b> .....   | <b>15</b> |
| <b>3.- Lanaren garapena</b> .....  | <b>15</b> |
| 3.1.- Helburua .....   | 15        |
| 3.2.- Hipotesiak.....  | 15        |
| 3.3.- Zergatik eta zertarako ikastetxeetan A.A teoria integratu? .....   | 16        |
| 3.4.- Nola eraldatu dezakegu ohiko eskola adimen anitzak bultzatzen dituen<br>eskola izateko? .....                      | 18        |
| 3.5.- Adimen anitzak lantzeko proposamenak.....  | 20        |
| <b>4.- Emaitzak eta ondorioak</b> .....  | <b>21</b> |
| <b>5.- Erreferentziak</b> .....  | <b>24</b> |
| <b>ERANSKINAK</b> .....  | <b>26</b> |
| 1. eranskina: Howard Gardner-ren biografia .....   | 27        |
| 2. eranskina: Adimenen hobekuntzarako programa psikohezitzaileak.....  | 29        |
| 3. eranskina: Elkarrizketa Lamiako Eskolako zuzendari ohiari .....   | 32        |
| 4. eranskina: Adin anitzetako pertsonari egindako galdetegia eta emaitzak.....   | 35        |
| 5. eranskina: 60 pertsonari luzatutako galdera eta emaitzak .....  | 42        |
| 6. eranskina: Jarduera arrakastatsuen informazioa; talde elkarreragileak eta<br>Jardunaldi kultural-gastronomikoak ..... | 43        |

## INTELIGENTZIA ANITZA HOWARD GARDNER-RENGAN

### Hezkuntza Sistema goitik behera aldatu dezakeen proposamena

Araitz Herrero Otxoa

UPV/EHU

#### LABURPENA

Lan honen helburua, Howard Gardner-rek proposatutako Adimen Anitzen Teoriaren inguruan hausnarketa eta ikerketa egitea izan da, baita hezkuntza eremuan ezartzearen aukera aztertzea ere. Proposamen honek, adimena bakarra eta orokorra denaren paradigma tradizionala apurtu zuen, adimena anitza dela azpimarratuz. Hortaz, teoria honen ezarpena eskoletan, aldaketa sakona suposatzen du. Izan ere, ikasteko dauden modu desberdinak errespetatuz, pertsona guztiei erantzun egokia ematea lortuko litzateke, modu honetan, eskola zein gizarte inklusiboa lortzeko ateak zabalduz.

*Adimena, adimen anitzak, eskola inklusiboa, eskola porrota, hezkuntza sistema*

#### RESUMEN

El objetivo de este trabajo ha sido hacer una reflexión e investigación acerca de la Teoría de las Inteligencias Múltiples propuesta por Howard Gardner, y de su posible aplicación en el ámbito de la educación. Esta propuesta rompe el paradigma tradicional de inteligencia como única y general, señalando de este modo su pluralidad. Por lo tanto la aplicación de esta teoría en las escuelas supone un cambio revolucionario. Ya que respetando las maneras diferentes de aprender, daría respuesta adecuada a todos y cada uno de los individuos, abriendo camino a una escuela y sociedad inclusiva.

*Inteligencia, inteligencias múltiples, escuela inclusiva, fracaso escolar, sistema educativo*

#### ABSTRACT

The aim of this work is to reflect and investigate the Multiple Intelligences Theory proposed by Howard Gardner and its possible application in the field of education. This proposal breaks the traditional paradigms about the intelligence as unique and general, and in this way pointing out its plurality. Given this, the application of this theory in schools supposes a revolutionary change. Respecting the different ways of learning it would give an adequate result to all individuals, opening a path towards an inclusive school and society.

*Intelligence, multiple intelligences, inclusive school, school failure, educational system*

## Sarrera

Haur Hezkuntzako Graduari amaiera emateko eta orain arte jasotako irakaskuntzaren osagarri gisa, banaka egiteko azkenengo lan bat burutzea eskatu zaigu. Kasu honetan, gaur egungo Hezkuntza Sistema berritzeko eta aldatzeko proposamena luzatu dut, modu honetan gure gizartearekin bat egiten duen XXI. mendeko eskola sortzeko bidea zabalduz.

Gure gizartearen eta hezkuntzaren errealitateari erantzuna emateko, gaur egun garrantzi handia hartzen ari den Howard Gardner-ren Adimen Anitzen teoria aukeratu dut. Gardner psikologiako zientzialari garaikiderik interesgarrienetarikoa da, bereziki adimenarekin zerikusia duten gaietan. Hala ere, proposatzen duen teoria ez da giza ezagutzaren planteamendu bat gehiago soilik, baizik eta zientzia psikologikoa, eta batez ere hezkuntza iraultzen ari den proposamena.

Adimen Anitzen teoriak pertsonen alderdi genetikoak kontuan hartuta, gure burmuin potentziala anitza eta moldagarria dela dio, beraz, maila batean ala bestean denok adimen bat baino gehiago garatzen ditugu. Gardner-ek (1983,1987,1993, 1995), beste psikologo kognitibo batzuk bezala, adimen bakarraren (“g” faktorea) eta test edo proba psikometrikoen ikusmoldea kritikatu du. Hau da, bere ikuspegi egonkorra eta itxia zalantzan jartzen du. Proba hauek alderdi linguistikoak, logikoak eta espazialak soilik neurtzen dituztela, eta gizakiarentzat guztiz garrantzitsuak diren beste batzuk aldiz, ahaztu egiten dituztela dio, hain zuzen, alderdi sozialak eta emozionalak. Ebaluatzeko erabiltzen dituzten tresnen aurka agertzen da, adimen mota guztiak neurtzeko ez baitituzte balio, gizakia modu gogorrean sailkatzen duela argitzen baitu. Berak duen ikuspegia adierazteko adimenaren definizio anitzagoa proposatu zuen, non adimena gizakiaren gaitasun bezala aurkeztu zuen. Gaitasun horrek arazoak ebazteko eta gizartean baliagarriak diren produktuak sortzeko balio dio gizakiari, eta familia, eskola zein gizarte ingurunearen arabera, horien egituraketa modu batean ala bestean emango da. Modu honetara, adimena gizakia mugitzen den ingurune sozialean eta kulturean sortu eta garatzen da, nahiz eta elementu biologikoak ere parte hartzen duten (Sanz de Acedo, 2000). Hortaz, honen arabera, gizabanako bat inteligentea den ala ez komunitateak erabakitzen du, ez testa edo proba estandarizatuak.

Nahiz eta Gardner-ren teoria eskolari zuzendua ez egon, kuriositate handia sortu zuen hezitzaileen artean. Eskolak duen erantzukizunetako bat ikasleak beraien profil

intelektualaren arabera prestatzea da, beraz, zentzu horretan, Adimen Anitzen teoria oso tresna baliagarria bilakatu daiteke. Hau da, guztiontzako kalitatezko hezkuntza-sistema sortzeko bide bat izan daiteke. Izan ere, Gardner-ren lanak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aldaketak egiteko baliabide teoriko zein praktikoak eskaintzen ditu.

Gai hau aukeratzearen arrazoiak anitzak izan dira. Nire bizi esperientziak erakutsi didanez, pertsona guztiak ezberdinak gara eta pentsatzeko, jokatzeko, arazoak ebazteko, ikasteko ... modu ezberdinak erabiltzen ditugu. Hau da, bakoitzak garatutako adimenak modu batean ala bestean erabiltzen ditugu, eta horrek pertsona bakoitzaren izaera ezberdintzeaz gain, munduan ditugun hainbeste baliabide zein egoera sortzea ahalbidetu du. Bestalde, ikaslea izan naizen urte guzti hauetan nota altuenak ateratzen zituztenak ez zirela zertan profesional hoberenak konturatu naiz, eta nota txarrak ateratzen zituzten beste batzuk aldiz, eskolatik kanpo sormendunak, adimentsuak ... zirela ikusi dut. Hau horrela izan daiteke, adimenaren inguruan dugun ideia ez delako osatua, eta gizartean bezala, eskoletan ere adimen moten hierarkizazioa ematen delako. Halandaxe, adimen mota batzuei garrantzi handia ematen zaie eta beste batzuk aldiz, alde batera uzten dira. Honen ondorioa, ikasle askoren eskola porrota da, baloratuak sentitzen ez garenean motibazioa zein interesa galtzea normalena baita. Eskoletan ematen den egoera hau onartezina da. Irakaskuntza guztiontzako derrigorrezkoa bada, ikasle guztiei erantzuna eman behar zaie, eskola inklusiboa lortuz.

Arrazoi hauengatik eta beste hainbesterengatik, Adimen Anitzen teoriaren inguruan ikertzea erabaki dut. Modu honetan, betidanik sinetsi eta kuriositatea izan dudana gaitan inguruan ikertzeko aukera izateaz gain, etorkizunean ikastetxeetan zerbait eraldatzeko balio izango duelakoan nago. Hortaz, lan honetan, adimen anitzen teoria azaltzeaz gainera, ikastetxeetan zergatik, zertarako eta nola integratu daitezkeen argituko da. Amaitzeko, proposamen batzuk, emaitzak eta ondorioak azalduko ditut.

Etorkizunean, praktikan batez ere, gai honen inguruan ikertzen jarraitzea beharrezkoa ikusten dut, modu honetan teoria honek eman ditzakeen emaitzak aztertzeaz gain, etorkizuneko profesionalak prestatzeko abagunea irekiko delako. Einsteinek esaten zuen bezala:

*“Emaitza ezberdinak bilatzen badituzu, ez egin beti gauza bera”*

## 1.- Marko teoriko eta kontzeptuala: Adimen Anitzen teoria

### 1.1.- Teoriaren jatorria:

Howard Gardner, egun indarrean dagoen psikologiaren eremuko zientzialaria, Adimen Anitzen teoriaren erreferente nagusia da. 1943. urtean jaio zen eta Harvard Unibertsitatean Soziologia, Medikuntza, Filosofia eta Psikologia ikasi zituen. Egungo, Harvard Unibertsitateko irakaslea da eta bertan hezkuntza proiektu bateko zuzendariordea da, "Project Zero" izeneko proiektukoa. Baita Bostongo Unibertsitateko irakaslea da (1. eranskina: Howard Gardner-ren biografia).

1979. urtean, Harvard-en ikertzailea zelarik, Holandako Bernard Van Leer de La Haya fundazioaren eskutik, giza potentzialaren inguruan ikertzeko enkargua jaso zuen. Egindako ikerketen ondorioak 1983an argitaratu zituen *Frames of Mind* liburuan, non adimenaren inguruko teoria berri bat formulatu zuen, hots, Adimen Anitzen teoria. Liburu honek, momentu hartan adimenaren inguruan zegoen ikuskeran aldaketa sakona ekarri zuen (Ander-Egg, 2007).

Gardner-ek (1995), bere teoria argitaratu zuenean (1983an) esan zuenez, beste psikologo-ikertzaileen artean ez zuen onarpen zabala izan: "*Nire teoria psikologo gutxi batzuei gustatu zitzaion, beste askori ez zitzaion gustatu, eta gehienek ez zuten kontuan ere hartu*". Bere proposamena ahaztuko zelakoan konbentziturata zegoelarik, Hezkuntza sektorearen profesionalen atentzioa jasotzen hasi zela nabarmentzekoa zen. Hezkuntza zein familia esparruetan interes handia piztu zuen, eta 1983tik aurrera aztertzen hasi zen Adimen Anitzen teoriak hezkuntzari zer motatako ekarpena eskaini diezaiotkeen.

Hitz gutxitan esanda, teoria hau bere jatorrizko diziplinan ez zela baloratua izan esan dezakegu, baina Hezkuntza sektorean aldiz, onartzeaz gain arrakastatsua bilakatu zen. Izan ere, irakaslearen rola zein beste aspektu batzuk aldatzen zituen praktika pedagogiko zein instituzional berriak sortzeko oinarritzat hartu zuten.

### 1.2.- Zer da adimena?

Gaur egun, ez dago argi zer ulertu behar dugun adimen adieraz, hortaz, iturri, egile, kultura, eta garai bakoitzaren arabera definizio ugari aurkitzen ditugu. Adibidez:

- Adimena nire testak neurtzen duena da. (Binet, 1900)

- Adimena pentsamendu abstrakturako ahalmena da. (Terman, 1921)
- Adimena nerbio-sistemaren aldagarritasun orokorra da. (Pinter, 1921)
- Adimena ingurura moldatzeko ahalmena da. (Piaget, 1952)
- Gaitasun intelektuala da. (Diccionario idológico de la lengua española, 1992)
- Ulertzeko gaitasuna. Arazoak ebazteko ahalmena. Jakintza. Trebetasuna eta esperientzia. Funts espiritualak. (RAE, 2014)

Historikoki, gizakiok adimen bakarra genuela pentsatu izan da. Orain arte gizakion adimena bateratua zela eta bakoitzaren adimen maila zenbaki baten bidez (IK= Inteligentzia koizientea) neurtzea posiblea zela (testa edo proba psikometrikoak erabilia) suposatu baitugu. Howard Gardner-ek aldiz, ikuskera erreduzitu hau zalantzan jarri zuen eta *Frames of mind* (1983) liburuan inteligentziaren definizio berri bat proposatu zuen:

- Arazoak konpontzeko gaitasuna edota kultura edo gizarte ingurune baterako balio handiko produktuak ekoizteko gaitasuna. (Gardner, 1987, 1993,1994)

Psikologo zientzialari honek kontzeptua pluralizatu eta adimena gizakiok garatu dezakegun gaitasun modura azaldu zuen. Definizioa aztertzean bi atal bereizten dira. Lehenengoa, arazoak konpontzeko gaitasuna da. Honetarako gai izateak zera esan nahi du, helburu batera iristeko bide egokiena zein den aukeratzeko gai izatea, eta helmugara eramango gaituzten pausuak egokienak izan daitezela. Gizartean arazo mota ugari daude, sinpleak zein konplexuak, hortaz, bai botoi bat jostea baita txerto garrantzitsu bat sortzea ere, gizakien adimena islatzen duten arazoak dira. Bigarren atala aldiz, kultura edo gizarte ingurune baterako balio handiko produktuak ekoizteko gaitasuna da. Kasu honetan ere, ekoiztutako produktuak ezaugarri ezberdinetakoak izan daitezke, hots, zerbait sinple baina baliagarria, teknologia berriak ... zein beste hainbeste aukera. Hortaz, igeltsero batek egindako etxea edo arkitekto batek diseinatutako etxe-orratza, pertsonon adimenaren adierazpen ezberdinak islatzen dituzte (Amarís, 2002).

Hau horrela izanda, adimena gizakia mugitzen den ingurune kulturean eta sozialean garatzen da, nahiz eta elementu biologikoak ere eragina izan. Beraz, honen arabera, komunitateak erabakitzen du gizabanako bat adimentsua den ala ez, eta ez proba edo test psikometriko batek (Sanz de Acedo, 2000).

Gardner-ek adimen bakarraren teoria ("g" faktorearen teoria) eta proba edo test psikometrikoen ikusmoldea kritikatu du. Honen ikusmolde bateratua, orokorra eta egonkorra zalantzan jartzen du, bere ustez, gizakiok adimen mota ezberdinak garatzen baititugu (Herrnstein eta Murray, 1994). Adimena zenbaki batez neurtzen duten proba hauek alderdi linguistikoak, logikoak eta espazialak soilik neurtzen dituztela eta gizakiarentzat guztiz garrantzitsuak diren beste batzuk aldiz, ahaztu egiten dituztela dio, hain zuzen, alderdi sozialak eta emozionalak (Gardner, 1987).

Alfred Binet psikologo frantsesa izan zen proba psikometriko hauen aitzindaria. 1900. urtean, *La Belle Époque* garaian, adimena neurtu ahal izateko tresnaren bat sortzea eskatu zioten, eta horrela egin zuen. Denbora gutxian, berak sortutako tresna inteligentzia testa moduan ezagutua izan zen eta test honen neurria inteligentzia koizientea (IK). Tresna honen jatorrizko helburua ikasleen adimena neurtzea zen, modu honetan, ikasketetan arrakasta izango zuten ala ez aurreikusteko. Baina adimena neurtzeko erreminta honek izandako arrakastaren ondorioz, mundutik zabaldu eta pertsona ugariarekin erabilia izan zen. Momentu hartatik, IK testa psikologoek lorpenik garrantzitsuenetarikoa bilakatu zen, hots, oso erabilgarria den erreminta zientifiko hutsa.

Aipatu bezala, gizakion adimena neurtzeko edo ebaluatzeko erabiltzen dituzten tresna hauen aurka agertzen da. Izan ere, adimen mota guztiak kontuan ez izateaz gain, gizakiak modu gogorrean sailkatzen dituela pentsatzen du, alde batetik pertsona adimentsuak eta bestetik ez adimentsuak edo ez hain adimentsuak sailkatuz (Gardner, 1995). Gainera, ikerketa askoren ondorioetariko bat, koiziente intelektual altua izateak ez duela bizitzarako arrakasta ziurtatzen da (Cabrera, 2006), hortaz, Gardner-ek arrazoiak izan dezake esatean IK zenbakiak test hauek egiteko abilezia neurtzen dutela. Hau da, testak eskuratutako jakintza islatzen du, baina arazoak ebazteko abilezia ala etorkizunaren garapena ahalbidetzeko gizakiak duen potentziala ez da hauetan baloratzen. Ken Robinson-ek (2011) dioenez, gizakiok inteligentzia testetan neurtzen diren abileziak soilik izango bagenitu, gizakion kulturaren zati handi bat ez litzateke existituko.

Gardner-ek (1987) adimenen independentzia erlatiboa azpimarratzen du, eta hauek elementu biologikoen eta kultura bakoitzean dauden ikasteko aukeren arteko ondorioa dela dio. Piaget-ekin (1952) bat egiten du adimenaren garapena ebolutiboa, dinamikoa eta kualitatiboa dela esatean. Baina Piaget-ek munduko alderdi fisikoetatik abiatuta



(denbora, espazioa, kausalitatea), adimena pentsamendu logiko-matematikoaren arabera definitzen du, Gardner-rek aldiz, modu askotan interpretatzen du, harentzat arrazonamendu logiko-matematikoa adimen mota bat besterik ez da eta.

Adimenaren ikuspegi ezberdin hau aurkezteko, adimen kognitiboa soilik baloratzen duen teoria baino haratago doan Adimen Anitzen teoria proposatzen du Gardner-rek.

### 1.3.- Adimen Anitzen teoriaren ezaugarriak

Adimen Anitzen proposamena, Spearman (1904), Thurstone (1938, 1983) eta Guilford-  
ren (1958) adimenaren teoria faktorialaren jarraipena da. Batez ere, Thurston-ek (1983)  
analisi faktorialen ondorioetatik ateratako “lehen mailako zazpi faktoreak” izeneko  
teoriaren jarraipena da. Hala ere, Gardner-rek, alderdi batzuk zalantzan jarri zituen eta  
beste batzuk hurrengo iturri hauetatik ateratako informazioarekin osatu zituen (Ander  
Egg, 2007):

- Burmuin gaixotasun baten ondorioz eman daitekeen gaitasunen narriadura aztertu zuen, modu honetan garuneko lesioa eta funtzio batzuen narriadura erlazionatuz.
- Profil kognitibo oso irregularrak duten pertsona bereziekin bere ikerketa osatu zuen ere, hauen artean, haur prodijioak, autistak, arlo batean soilik oso jakintsuak direnekin ...
- Ume “normaletan” (garunaren garapenari dagokionez) gaitasun ezberdinen garapena nola ematen zen ikertu zuen. Honi, “adimenaren ikerketa goiztiarra” izena eman zioten.

Ikerketa hauen eta beste batzuen ondorioz, adimena bakarra eta orokorra denaren paradigma tradizionala apurtu zuen. Gardner-ren (1987, 1993,1994, 1995) arabera, ezin daiteke hitz egin adimen bakar batez, anitzez baizik. Dioenez: *ebazteko arazo mota ezberdinak ditugun moduan, inteligentzia mota asko ditugu ere*. Haren iritzi, bakoitzaren faktore genetikoen, kulturaren eta testuinguruaren arabera adimen motak neurri batean ala bestean garatzen ditugu. Gizaki guztiak, neurri batean, gaitasun horien guztien jabe gara, baina gaitasun bakoitzaren garapen mailan ezberdintzen gara, baita neurri ezberdinak dituzten gaitasun horien konbinaketan (Oihartzabal, 2003). Adimen

mota guztiak nahiz eta nortasun autonomoa duten, elkarrekin lan egiten dute giza jarduera guztietan, hortaz, adimen bakoitzaren barruan adimentsua izateko bide ugari daude.

Azkeneko 30 urtetan, Gardner-rek hainbat egokitzapen egin dizkio teoria honi. Adibidez, hasieran zazpi adimen mota deskribatu zituen, eta geroago beste bat gehitu zuen. Urteak aurrera joan direla ikerketa asko egin dira honen inguruan eta egun beharbada 12 adimen mota ditugula esaten da. Hau azalduta, hona hemen Howard Gardner-rek proposatzen dituen adimen ezberdinak (Gardner, 1987, 1995; Ander Egg, 2007):

- **Hizkuntza-adimena:** Hitzak edo hizkuntza modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna izatea. Hau da, hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta informazioa lortzeko, zein ideiak eta sentimenduak ahoz edo idatziz adierazteko gaitasuna da.

Hizkuntza sortzea ahalbidetzen digun garuneko gunea *Brocca* izenez ezagutzen da. Gune honi esker zentzua duten esaldiak sortzeko kapazak gara. Hortaz, gune hori kaltetuz gero, zentzuzko esaldiak sortzeko gaitasuna ere galduko genuke.

Ohiko profesionalak: Idazleak, poetak, kazetariak, hizlariak, abokatuak, politikariak ... hots, haien lanbideetan hizkuntza ondo erabiltzea garrantzitsua den guztietan.

- **Adimen logiko-matematikoa:** Operazio matematikoak, problemak, hipotesiak, argudioak ... prozesatzeko trebetasuna izateaz gain, pentsamendu logikoa erabiliz, patroi abstraktu eta konplexuen arteko harremanak antzemateko gaitasuna izatea.

Gure garunetan badira gaitasun logiko-matematikoa bideratzeko garrantzi berezia duten gune ezberdinak, hots, beste gune batzuk baino erabakigarriagoak direnak. Hau dela eta, badaude pertsona ugari gaitasun honetan oso trebeak direnak baina beste batzuetan aldiz, oso atzeratuak daudenak.

Ohiko profesionalak: Zientzialariak, matematikoak, ingeniariak, informatikoak, ekonomistak ...

- **Adimen musikala:** Musika formak hauteman, bereizi, eraldatu eta adierazteko gaitasuna izatea. Horrez gain, erritmoak, tonuak, melodiak ... antzeman eta erabiltzeko trebetasuna izatea.

Hainbat ikerketak ondorioztatu dutenez, musikaren pertzepzioan eta musikaren ekoizpenean eragin berezia dute garuneko zenbait gunek, beraz, hauek kaltetzen badira, musikarako gaitasuna galtzea eragin dezake.

Ohiko profesionalak: Abeslariak, dantzariak, musikariak ...

- **Adimen zinetiko-korporala:** Gorputzaren bidez ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna izateaz gain, gorputza eta zentzu-organoen bidez informazioa jasotzeko trebezia izatea.

Burmuinetako kortexean kokaturik dago gure mugimenduak kontrolatzeko gaitasuna. Eskuineko hemisferiotik kontrolatzen dira ezker aldeko mugimenduak eta ezkerreko hemisferiotik eskuinekoak. Gune horietakoren bat kaltetuko balitz, borondatezko mugimenduak burutzeko gaitasuna ere kaltetuko litzateke.

Ohiko profesionalak: Kirolariak, dantzariak, artisauak, aktoreak, medikuak ...

- **Adimen espaziala:** Irudien bidez pentsatzeko eta ideiak grafikoki jartzeko trebezia izateaz gain, espazioaren antolakuntza irudikatze eta eraldatzeko gaitasuna izatea.

Espazioa kalkulatzeko gaitasun gune nagusia garunetako eskuin aldean kokatuta dago. Eskuineko hemisferioaren atzealdean ezbehar bat gertatuz gero, kokatzeko gaitasuna kaltetuko litzateke.

Ohiko profesionalak: Arkitektoak, irudigileak, artistak, arrantzaleak ...

- **Pertsonarteko adimena:** Besteak ulertzeko eta beraiekin elkarreragiteko eta lankidetzan aritzeko gaitasuna izatea. Hau da, pertsonen nahiak, motibazioak, asmoak, ... antzemateko eta ulertzeko gaitasuna. Beste pertsonekin harreman aberatsak izateko trebetasuna.

Nagusiki garuneko lobulu frontalean kokatuta dago. Gune honetan gerta daitezkeen kalteek ondorio zuzena edukiko lukete.

Ohiko profesionalak: Irakasleak, aholkulariak, hezitzaileak, terapeutak ...

- **Pertsona barneko adimena:** Nork bere burua ulertzeko gaitasuna izatea da. Hau da, bakoitzaren indarrak eta ahuleziak hautemateko, baloratzeko eta erabiltzen jakiteko gaitasuna. Honek, kontuan hartzen du barneko sentimenduak, pentsamenduak ... antzemateko, hausnartzeko eta kudeatzeko trebetasuna izatea.

Garuneko lobulu frontalak nortasunean eman ohi diren aldakuntzetan betekizun garrantzitsua dute. Lobulu frontaletako behealdean eman daitezkeen kalteak suminkortasuna, urduritasuna edo euforia egoerak sortaraz ditzakete. Goialdekoak aldiz, axolagabetasuna, geldotasuna, apatia ... eta antzekoak.

Ohiko profesionalak: Psikologoak, filosofoak, erlijio liderrak ...

- **Adimen emozionala:** Pertsona barneko eta pertsonarteko adimenen elkarketa da. Hau da, bakoitzaren emozioak zein besteenak hautemateko eta ulertzeko gaitasuna izatea, eta aurretik hauteman diren emozio eta afektu horiek erregulatzeko gaitasuna izatea.

Ohiko profesionalak: Psikologoak, irakasleak, gizarte hezitzaileak ...

Arestian aipatu bezala, urte batzuk aurrerago zortzigarren bat gehitu zuen:

- **Adimen naturalista:** Ingurugiroa zaintzeko garrantzia ulertzea eta natura mundua, landareak, animaliak ... ulertzeko, behatzeko, sailkatzeko, hipotesiak ateratzeko ... gaitasuna izatea.

Adimen honen kokapena zehaztuta ez dagoen bakarra da, batzuk eskumako hemisferioan kokatuta dagoela diote, eta beste batzuk ezkerreko lobuluan.

Ohiko profesionalak: Biologoak, fisikariak, kimikariak, lorezainak ...

Urte batzuk aurrerago, 2006an, zalantzan jarri ziren beste hiru adimen mota gehiago proposatu zituen:

- **Adimen sexuala:** Atsegintasun sexualarekin erlazionatutako gaitasuna.
- **Adimen digitala:** Teknologia berriak maneiatzeko gaitasuna izatea.
- **Adimen existentziala:** Bizitzaren alde moralarekin erlazionatutako gaitasuna.

Nahiz eta gure gizartean zein eskoletan adimenen hierarkizazioa ematen dela esan, Gardner-ek adimen mota guztiak garrantzitsuak direla nabarmentzen du, hau da, ez du adimen bat bestea baino gehiago baloratzen (Guerrero, 2006). Teoria honen arabera, gizakiok “8” modu ezberdinetan ezagutu dezakegu mundua, hots, Gardner-ek sailkatutako zortzi adimen moten bidez. Adimen bakoitza neurri batean ala bestean garatzen ditugula kontuan hartuta, pertsona bakoitzak bere adimen profila duela argitzen da, baita profila honen arabera, diziplina batzuetan besteetan baino trebeagoak izango garela ere.

Adimen Anitzen teoria ulertzeko, ezinbestekoa da teoria honen oinarrizko printzipioak onartzea. Hasteko, adimen bakoitza moldagarria dela, beraz, bizitzan zehar garatu daitezkeela. Horrez gain, gizakia adimen guztiekin jaiotzen dela eta familia, eskola zein ingurunearen arabera adimen horien egituraketa berezia emango dela. Adimen bakoitza maila batean garatuko dugula, hortaz, garapen maila honen arabera zein egiten ditugun adimenen konbinaketan arabera, pertsona bakoitzaren profila aterako da.

Gardner-ek Armstrong-en hitzak aipatuz, zera esan zuen Adimen Anitzen teoriaren inguruan: *“nire ikuspuntutik, teoria honen esentzia pertsonen artean dauden ezberdintasun anitzak errespetatzea eta baloratzea da, munduan arrastoa usteko modu anitz baitaude”* (Armstrong, 1999).

#### **1.4.- Hezkuntzari egindako ekarpenak**

Arestian aipatu bezala, Adimen Anitzen teoria ez zegoen eskolari zuzendua baina kuriositate handia sortu zuen hezitzaileen artean. Honen ondorioz, hezkuntza kalitatearen hobekuntzan eragina izan duen teoria eraginkorrenetarikoa bihurtu da. Hau dela eta, Gardner-ek argitalpen ia guztietan, eskola, trebetasun anitzak aurkitzeko, garatzeko eta ebaluatzeko leku aproposa dela aipatzen du (Sanz de Acedo, 2000).

Adimen Anitzen ikuspegia onartuz gero, hezkuntzaren eremuan garrantzizko aldaketak eman beharko lirateke. Hau da, ikuskera honek hezkuntza ulertzeko ikuspegi ezberdina eskatzen du, eskola eredu berri bat alegia. Guerrero-k (2006) dioen bezala, egungo hezkuntza programak aztertzen baditugu, gure hezkuntza sisteman adimen logiko-matematikoa eta hizkuntza adierazpen gaitasunak ia oinarrizko bakartzat onartzen direla konturatuko gara, beste adimen motak alde batera utziz. Adimen moten hierarkizazio

hau, eskola porrotaren arrazoiatariko bat izan daiteke. Izan ere, ikasle askok akademikoki ez dute arrakastarik izaten, eta horrek porrot egin dutenaren sentsazioa pizteaz gain, haien talentua amatatuta utz dezake.

Gardner-ek (1995), pertsona bakoitzak ikasteko modu bat daukagula kontuan hartuta, ikasteko eta irakasteko sistema ezberdin bat proposatzen du. Bere proposamena, ikaslearen zentratutako hezkuntza sistema sortzea da, non ikasleak haien ikaskuntzaren protagonistak bilakatu eta bakoitzaren gaitasunak zein estrategiak aurkitzeko eta garatzeko aukera anitzak dituzten. Horrela, etorkizuneko eskola inklusiboak ikaslearen adimen ezberdinak bultzatu eta garatzen lagunduko luke. Gardner-ek zera dio: *“ikasle bakoitzari bere adimen motaren arabera irakastea posiblea da, ikasteko modua errespetatuz eta ikasitakoa erakusteko aukera emanez”*.

Hezkuntzan, teoria honen aplikazioaren ekarpena, bi eremu nagusitan ematen da: hezkuntza sisteman eragiten duten aldagaien aldaketan eta adimenen hobekuntzarako bideratu dituzten programa psikohezitzaileetan.

Teoria hau aurrera eramateko, hauek dira hezkuntza sisteman aldatu beharreko aldagaiak:

- a) Curriculum, metodologia, helburuak eta ebaluatzeko sistema.
- b) Irakasle eta ikaslearen rolen aldaketa.
- c) Arloen, ordutegiaren eta espazioaren antolakuntza berria.

Aldagai hauek eraldatzeko ez dago errezeta bakarrik. Hala ere, ikasleak haien ikasketen protagonistak bilakatzea, guztiok guztiongandik ikastea, ikas-proiektu aberatsak sortzea eta baliabide egokiak erabiltzea, metodologia honen oinarria izan behar du.

Bestalde, aipatu bezala, adimenen hobekuntzarako Adimen Anitzen teorian oinarritutako zenbait proiektu psikohezitzaileak bideratu dituzte, esanguratsuenak *Spectrum*, *Arts PROPEL* eta *Practical Intelligence for School* direlarik. Ezin esan daiteke aipatutako programak hoberenak direnik, baina aniztasun kognitiboaren garrantzia azpimarratzen duen teoria zientifiko batek babesten ditu (Etxebarria, 2013) (2. eranskina: Adimenen hobekuntzarako programa psikohezitzaileak ).

Egun, badaude Adimen Anitzen teoria praktikan jarri duten hezkuntza erakunde batzuk, eta dirudenez, 10 urte pasatu ondoren, hurrengo onura hauek lortu dituzte: jarrera arazoak txikiagotu dira, auto-estimua igotzea, lankidetzaren garapena, interesaren eta kuriositatearen igoera, eskolarekiko afektua, humorearen presentzia konstantea, jakintzaren areagotzea ... eta beste zenbait ekarpen aberats (Luca, 2007).

## **2.- Metodologia**

Presente daukagun dokumentu hau burutzeko, gaiarekin bat datorren metodologia kualifikatiboa erabili da.

Datuak biltzeko eta aztertzeko bide ezberdinak zabaldu dira. Hasteko, EHU-ko liburategitik hainbat liburu hartu eta aztertu nituen. Horrez gain, interneten ere oso baliagarriak suertatu diren hainbat artikulu zientifiko, monografia zein bideo interesgarri aurkitu, bildu eta ikertu nituen.

Iturri ezberdinetan bildutako datu hauek momentuko errealitatearekin egiaztatzeko asmoz, aipatu bezala, bide ezberdinak zabaldu ziren. Lehenengoz, 30 urtez irakasle eta zuzendari lez ibili izan den profesional bati elkarrizketa bat egin zitzaion. Ondoren, datu batzuk lortzeko, 40 bat pertsonari galdetegi bat pasatu zitzaion, eta 60 pertsonari galdera sinple bat ere bai. Azkenik, ikertutakoa bizi-esperientziak irakatsitakoarekin partekatu da. Hau da, ikasle moduan bizi izandakoa zein irakasle moduan praktikak egitean ikusitakoaren ekarpena egitea izan da nire asmoa.

## **3.- Lanaren garapena**

### **3.1.- Helburua:**

Adimen Anitzen teoria ikastetxeetan praktikan jartzea, merezi dugun XXI. mendeko eskola inklusiboa lortzeko bidea zabalduz.

### **3.2.- Hipotesiak:**

Howard Gardner-ren teoriarekin bat eginez, eskola ideala sortzeko hiru hipotesi hauetan oinarrituko gara:

- Ikasle guztiek ez dituzte interes eta gaitasun berdinak, hau da, denek ez dute modu berdinean ikasten.
- Inork ezin dezake ikasteko dagoen guztia ikasi.
- Eskola porrota desagertu daiteke.

### **3.3.- Zergatik eta zertarako ikastetxeetan Adimen Anitzen teoria integratu?**

Gizakien historian zehar, ikasteko zein informazioa transmititzeko metodoak aldatuz joan dira. Hasiera batean, idazketa asmatu baino lehen, imitazioz eta sortutako interakzioen bitartez ikasten zen. Idazketa sortzean aldiz, ikasteko eta belaunaldiz belaunaldi informazioa transmititzeko metodo berria sortu zen, eta honekin batera, jendeak ikasten zituen gauzak ere aldatu ziren. Honen ondorioz, lehenengo eskolak sortu ziren. Hauetan, irakasleak informazioa transmititzen zuen eta ikasleak transmititutakoa ikasten edo jasotzen zuten.

XVIII. mendean, industria-iraultza eman zenean, hezkuntza sistemak erregulatu hasi ziren. Erregulazio honen helburua, lantegietako muntaia-kateetan lan egiteko langileak prestatzea zen, hau da, ordu askotan zehar lan monotonoa eta errepikakorra egiteko prestatzea zen helburua (Redes, 2011).

Asmatu zuten eskola, eredu berdina jarraitzen zuen, hots, hainbeste kontzeptu buruz errepikatzen zituzten behin eta berriro. Prozesua estandarra eta lineala zen, eta erakusten zizkieten irakasgaiak jaio berri zegoen industria-ekonomiarako probetxugarrienak kontsideratzen zirenak ziren. Eredu hau gaur egun arte iraun du, alabaina, jada ez du balio, mundua azkeneko mende erdian erabat aldatu baita (Robinson, 2011). Flecha-k (2010) dioten bezala, zientzian eta teknologian batez ere aurrerapauso handiak eman dira, eta honen ondorioz, produkzioan oinarritutako gizarte industrial batetatik informazio eta zerbitzuen gizartera pasa gara.

Bestalde, aurkikuntza zientifikoek gure burmuina nola funtzionatzen duen jakiteko bidea zabaldu dute, hau da, ikaskuntzaren arduraduna den organoaren funtzionamendua argitzen saiatu dira. Honen ondorioz, gizakiak buruz edo errepikatuz ez dugula ikasten estalgabetu da. Esaten denez, modu aktiboan ikasten dugu, hunkitzen garenean. B. Franklin bere garaian esan zuenez: *“Esadazu, eta ahaztuko dut; erakutsidazu, eta*



*gogoan hartuko dut; parte hartzen lagun nazazu, eta ikasiko dut*". Richard Gerber-ek (2011) ere zera esaten du, hezkuntzaren balioa bidean dago ez helmugan. Hezkuntzaren momentu onenak esperientzien bitartez ematen dira, ezagutzen ez genuen zerbaitez ohartzen garenean.

Arrazoi guzti hauengandik, hezkuntza sistema berri, transformatu ... beharra dago, hau da, beste eskola mota bat kontsideratu beharra dago. Elkarrizketatutako Lamiako Eskolako zuzendari ohiak dioen bezala (2014), hezkuntza sistema zaharkituta dago eta eskola gizartearen atzetik joatea onartezina da, izan ere, gure errealitatera egokituta ez dagoen hezkuntza eskaintzea eskola porrota maila altua dakar. (3. eranskina: Elkarrizketa Lamiako Eskolako zuzendari ohiari).

Bizi dugun egoera honi erantzuna emateko, nahiz eta errezeta bakarra ez dagoen, Adimen Anitzen teoria ikastetxeetan integratzea ideia aberatsa izan daiteke. Izan ere, teoria honen oinarria, pertsonen ezberdintasunak onartuz eta baloratu, bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea da. Pertsonen ikasteko modu ezberdinak errespetatzen dira, hau da, ikasle bakoitzak INPUT-a modu desberdinean prozesatzen duela onartzen da (Castillejo, 2013). Beraz, erabili beharreko baliabideak zein metodologiak malguak eta irekiak izan behar dute, egoera bakoitzera moldatuz, eta ikasketa aktibo eta esanguratsua bultzatuz. Gardner-ek (2000) dioenez, teoria honen bitartez norbanakoan zentratutako hezkuntza eskaintzen da, ikaslea haren ikasketaren protagonista bilakatuz.

Esandakoaz gain, burutu ditudan bi galdetegi bitartez (4. eta 5. eranskinak) adimen mota guztiak baloratzea garrantzitsua dela aztertu dut. Lehenengo galdetegian (4. eranskina), adimen anitzak lantzeko 15 jarduera ezberdin proposatu ziren eta galdetegi burutu zutenek hauetatik gustukoak dituzten 5 aukeratu behar zituzten. Galdetegi honen helburua, zein adimen motak diren gehien gustatzen zaizkigunak jakitea zen, hau da, zeintzuk diren gure bizimodua alaitzen dizkigutenak, eta eroso zein motibatuak sentiarazten gaituztenak. Aukeratuak atera diren 5 jarduerak aztertzean, hauekin lantzen diren adimen motak hezkuntza sisteman gutxien baloratu eta lantzen direnak direla ikusi nuen. Arestian aipatu bezala, orain arte eskoletan gehien landu direnak, adimen logiko-matematikoa eta linguistikoa dira, eta galdetegi honen arabera, gustukoak ditugunak pertsonarteko adimena, adimen musikala, pertsona barneko adimena, adimen zinetiko-korporala eta espaziala dira. Hala eta guztiz ere, 15 jardueretan batutako datuak

aztertzean, pertsonak adimen mota guztiak erabiltzea gustuko dugula ikusten da. Izan ere, 40 pertsona hauen aukeraketa askotarikoa izan zen, hots, denetarik aukeratu zuten.

Bigarren galdetegian aldiz (5. eranskina), adimen anitzen inguruan gehiago ikertzeko asmoz, hurrengo galdera luzatu nien 60 pertsona ezberdinei:

- Imajina ezazu telefono mugikor berria erosten duzula. Nola jarriko zenuke martxan?
  - a) Argibideak edo instrukzioak irakurritz.
  - b) Manipulatuz, hau da, botoi ezberdinei sakatuz martxan jartzen.
  - d) Norbaiti galdetuz.

Ikerketa txiki honen helburua, pertsonak arazo berdina konpontzeko balio berdina duten bide ezberdinak erabiltzen ditugula baieztatzea zen. Hau da, arazo bat konpontzeko adimen ezberdinak erabili daitezkeela baieztatzea. Emaitzek, hasierako hipotesia baieztatu dute.

Egungo egoera horrela dela kontuan izanda, Adimen Anitzen teoria, eskola porrota gainditzeko zein hezkuntza sistema gaurkotzeko filosofia egokia izan daiteke.

### **3.4.- Nola eraldatu dezakegu ohiko eskola adimen anitzak bultzatzen dituen eskola bat izateko?**

Adimen Anitzen ikuspegia onartzeak, eskolen antolamenduan aldaketa sakona suposatzen du (Gardner, 1994). Izan ere, eskola uniforme batetatik, hau da, ikasle guztiei curriculum, metodoa eta ebaluatzeko modu berdina erabiltzen duen hezkuntza sistematik, norbanakoan zentratutako hezkuntzara pasa behar da.

Ohiko eskola adimen anitzak bultzatzen dituen eskola batean eraldatzeko, Gardner-ek (1993,1995) esandako eskola idealaren bi hipotesiak oinarritzat hartu behar dira. Lehenengoa, gizaki guztiek ez dituztela jakin-min eta gaitasun berdinak da, hots, guztiok ez dugula modu berdinean ikasten. Bigarrena aldiz, munduan ikasteko dagoen guztia inork ezin duela ikasi da, hortaz, ikasi nahi duguna aukeratu beharra izaten dugu.

Behin bi hipotesi hauek onartuta, ikastetxeen antolamenduaren zenbait arlotan aldaketak egin beharko dira. Gardner-ek eta bere jarraitzaileek hezkuntza sisteman eragiten duten aldagai guztietan erakutsi dute interesa. Hau da, heziketa helburuak, estrategiak,

curriculumua, ebaluazioa, irakasle-ikasleen rola zein gurasoena eta komunitatearena ere aldatzea, besteak beste.

Heziketa helburuei dagokionez, Gardner-ek (2000) hezkuntza maila ezberdinetako helburuak proposatzen ditu. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Goi Mailako Ikasketak ezberdintzen ditu. Haur Hezkuntzan, ikasle bakoitzaren adimenen lehen profil kognitiboa identifikatzen eta ebaluatzen saiatuko da eskola. Adimen bakoitzaren azterketa ahalbidetzeko, estrategia zein baliabide anitz erabiliz ikaskuntza esperientziak bultzatuko dira. Lehen Hezkuntzan aldiz, ikasle bakoitzaren bizitzan garrantzitsutzat detektatu diren gaitasunak ahal diren gehien estimulatu behar dira, eta gaitasun ahulak orekatzen saiatu. Modu honetan, egungo gizarteak eskatzen dituen gutxieneko trebetasunak garatuak izan ditzaten. Bigarren Hezkuntzan, ikasle bakoitzaren bokaziozko adimenekin erlazionatuta dauden esperientziak estimulatu behar dira, eta azkenik, Goi Mailako Ikasketek pertsonak gaitasun berezi batean prestatzea dute helburu. Hezkuntza maila guztietan, helburu garrantzitsuena adimen anitzen garapena baldin bada, estrategiak ere anitzak eta malguak izan behar dute.

Curriculumua, moldatu behar den beste atal bat da. Ikasleek beharrezkoak dituzten edukiak, gaitasun anitzak eta ezagutzak sailkatuz, eta Ausubel-ek (1978) proposatu zuen bezala, ikas- proiektu esanguratsuak sortuz. Teoria honek, curriculumua malgua eta irekia izatea eskatzen du.

Ebaluazioaren filosofia ere aldatu beharra dago, ikasleen gaitasunak ahalik eta modu zehatzenean sumatzeko. Adimen anitzak eskolan izanez gero, ebaluazioak ere anitza izan beharko luke, ez arkatza eta paperezko galdetegiekin egindakoak soilik. Prozesu akademiko osoa baloratzea helburuetako bat da. Gardner-ren (1994) eta bere teoriaren ustetan, adimenak kultura eta tendentzia biologikoen ondorio dira, hortaz, gaitasunak gizartekideentzat esanahia duten ingurunean ebaluatzeko eredu berria proposatzen du. Hala ere, ebaluatzeko metodo hau eraginkorra izateko, interesgarriak diren ikaskuntzak behatzeko prozedura arrakastatsuak asmatu beharko dira.

Arlo guzti hauetan aldaketa ematen bada, irakasle eta ikasle roletan ere aldaketak eman beharko dira. Irakasleak ez du soilik informazioa transmititzen, baizik eta estrategia ezberdinen bitartez ikasleei prozesua erraztu eta aberastuko die. Guztiok guztiongandik ikastea bideratuz. Ikaslea aldiz, bere ikasketen protagonista izango da., hortaz,

erantzukizun handia du bere adimenen garapenean. Izan ere, rol honek norberak bere ezagutza eraikitzea, autonomia izatea eta helburuak onartzea suposatzen du.

Ikasleen familiak eta komunitatea bera ere ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan parte hartzea oso garrantzitsua da, izan ere, gizarteko sektore guztien elkarlanak hezkuntzaren kalitatea aberasten duela baieztatuta dago. Gardner-ek ez du alderdi hau ahazten. Horregatik, gurasoak eskolara hurbiltzea, parte hartzea eta laguntzea aberatsa dela dio. Flecha-k (2010) azpimarratzen duenez, heziketa eskaerak gero eta handiagoak diren garai honetan, eta eskola ordutegia murriztea zaila den gizarte honetan, oso garrantzitsua da komunitateko hainbat eragileren parte-hartzea eskatzea eta erraztea. Eskoletan gizarteak ematen dizkigun baliabideei probetxua atera behar zaie, hau da, eskola ezin daiteke errealitatetik isolatuta dagoen kaiola bat izan.

Aipatutako aldaketa guzti hauek, ondorio garrantzitsuak dituzte eskola bakoitzaren egunerokotasunean eta hezkuntza sistema osoaren filosofia definitzerakoan. Izan ere, eskola tradizionaletik (lineala eta estandarra dena), adimen anitzak garatzen dituen eskola batera salto egitea suposatzen dute.

### **3.5.- Adimen Anitzak lantzeko proposamenak**

Adimen anitzak lantzeko eta aldi berean eskola inklusiboaren bidea zabaltzeko hainbat proposamen daude. Atal honetan, nire esperientzia profesionalean zein egindako ikerkuntzan ezagututako hurrengo 4 hauek aurkeztuko dira: proiektuen bidezko ikaskuntza, Ikas Komunitate proiektuko jarduera arrakastatsu batzuk, adimen ezberdinak lantzeko txokoak eta Howard Gardner-ek proposatutako programa psikohezitzaileak.

- a) Proiektuen bidezko ikaskuntza: Proiektuen bitartez lan egiteak adimen anitzak modu global eta esanguratsuan lantzeko aukera aberatsak ematen ditu. Izan ere, gai edo egoera baten inguruan lan egiteak, aukera zabalak ematen ditu jarduera, baliabide zein estrategia anitzak ikasleekin batera garatzeko. Proiektuen bidez lan egitean, ikasleen iritziak, interesak, jakin-minak ... aintzakotzat hartzen dira, norberaren zein besteen gaitasunak kontuan hartzen dira, baloratuz eta hauetatik ikasiz. Gainera, erantzukizun eta konpromiso pertsonalak hartzeko zein lankidetzaz

bultzatzeko abagunea zabaltzen dute. Ikasleak haien ikaskuntzaren protagonistak dira eta honi esker, motibazioa mantendu eta lanarekiko ilusioa mantendu daiteke.

- b) Ikas komunitateko jarduera arrakastatsuak: Ikas Komunitate proiektua jarraitzen duten eskola batean praktikak egin ondoren, adimen anitzak lantzeko zein eskola inklusiboa lortzeko zenbait jarduera arrakastatsu ezagutu nituen. Hauen artean, azpimarragarrienak talde elkarreragileak eta jardunaldi kultural-gastronomikoak direlarik (6. Eranskina: Jarduera arrakastatsuen informazioa; talde elkarreragileak eta jardunaldia kultural eta gastronomikoak). Hiru jarduera hauen bidez, ikasleek haien gaitasunak garatzeko, jakin-minak azaltzeko, interesak erakusteko ... aukerak dituzte, guztiok guztiongandik ikasiz eta kalitatezko bizikidetzaz sortuz. Azken finean, jarduera hauek errealitatetik eta egunerokotasunetik ikastea ahalbidetzen dute, egoera guztiak baloratuz eta bakoitzak ahal duen ekarpena eginez. Izaera inklusiboa dute eta haien jatorria ikasleen aukeretatik hasten da, ez haien zailtasunetatik.
- c) Adimen ezberdinak lantzeko txokoak: Bizkaia aldeko ikastola batean, gelako txokoak adimen mota ezberdinak garatzeko erabiltzen dituzte. Asteko egun bakoitzean txoko batean jartzen dute atentzioa, modu honetan aste osoan zehar adimen mota guztiak landu eta baloratzen direla ziurtatuz.
- d) Howard Gardnerrek proposatutako programa psikohezitzaileak: Arestian aipatu bezala, Gardnerrek eta Project Zero-ko lankideek adimen anitzak garatzeko programa psikohezitzaile batzuk sortu dituzte. Aipagarrienak, *Spectrum*, *Arts PROPEL* eta *Practical Intelligence for School* programak direlarik. (2. eranskina: Adimenen hobekuntzarako programa psikohezitzaileak ).

#### **4.- Emaitzak eta ondorioak**

Adimen Anitzen teoriak, adimen bakarra eta orokorraren paradigma tradizionala apurtzen du, adimena anitza dela azpimarratuz. Ikuspegi berri honek, gizakion gaitasun kognitibo anitzak azpimarratzen ditu, eta praktika pedagogiko zein instituzional berriak sortu ditu.

Adimen Anitzen teoria pertsona guztiak barne hartzen dituen ikuspegia da, eskola zein gizarte inklusiboa lortzeko bidea zabalduz. Gizakiok INPUT-a prozesatzeko eta jakintza

intelektualak zein sozialak adierazteko modu ezberdinak ditugula defendatzen du. Hortaz, teoria honekin “adimentsua izatea” ñabardurak ditu, hots, denak gara adimentsuak arloren batetan. Hau horrela izanda, eskoletan adimen mota guztiak lantzea eta baloratzea oso garrantzitsua da. Gardner-rek (1995) dioenez, ikastetxeen helburu nagusietariko bat, adimen mota guztiak garatzeko aukerak luzatzea izan beharko litzateke. Modu honetan, bakoitzak dituen gaitasunez ohartzeko eta gaitasun hauek bizitza profesionalerako zein pertsonalerako erabilgarriak izan daitezen bideratzeko.

Teoria honek, aspaldi susmatzen genuena baieztatu du, hau da, arrakasta akademikoa ez dela nahikoa. Mundutik mugitzeko beharrezkoak zaizkigun gaitasunak ere kontuan hartu behar baitira. Ikastetxe askoren hezkuntza programaren ardatza adimen logiko-matematikokoak eta linguistikoak osatzen dute, eta honen ondorioz, beste adimen mota batzuetan gaitasun handia duten ikasle askori ez zaie aintzat hartzen, hots, hain jakintsuak ez direnaren etiketa jarriz edo zuzenean eskola porrota jasoz. Izan ere, hezkuntzak hainbat jenio zapaldu ditu, hauen artean, Thomas Edison, Einsteim, Picaso, Stanley Kubrick, Eminem, Tonucci ... guzti hauek eta beste hainbeste. Pertsona hauek eskolan ez zuten arrakastarik izan, haien adimen mota ez baitzen ulertu edo momentuan espero zutena izan.

Horrelako kasuak onartezinak dira, eskolan behintzat guztiok arrakasta izateko eskubidea izan behar dugu eta. Hau da, eskolara joatea derrigorrezkoa bada, guztioi erantzuna eman behar die. Bestalde, ikastetxeetan metodologia eta estrategia anitzak erabiltzea aberatsa izango litzateke, horrela ikasle guztien ikaskuntza erraztuz eta bakoitzaren gaitasunak baloratuz, ez soilik adimen akademikoak garatuak dituztenenak.

Bizi esperientziak erakutsi didanez, akademikoki nota altuenak lortzen dituztenak ez dira zertan profesionalki zein pertsonalki arrakastatsuenak izan behar. Eta nota txarrak ateratzen dituztenak aldiz, eskolatik kanpo arrakasta izan dezaketela ikusi dut. Egindako bi galdetegien bidez ondorioztatu dudanez (4. eta 5. eranskinak), gizakiok adimen anitzak erabiltzea gustuko ditugu, eta arazo berdina ebazteko bide ezberdinak erabiltzen ditugu ere. Hala ere, dirudienez, ikastera eta bizitzaz goatzera gehien motibatzen gaituzten adimenak eta bideak dira, hezkuntza sisteman gutxien erabiltzen direnak. Nahiz eta adimen zein bide hauek gure bizitza pertsonalerako zein profesionalerako ezinbestekoak izan.

Lamiakoko zuzendari ohiak egindako elkarrizketan (3. eranskina) esan zuen bezala, adimen mota guztiak ez lantzea eta baloratzea ondorio txarrak dakartza. Hasteko, bi talde egiten direla da, balio dutenak eta porrota jasotzen dutenak. Hau da, pertsona akademikoak eta ez akademikoak. Bestalde, adimen guztiak ez baloratzean, bizitza praktikorako zein gozatzeko balio duten gaitasun ugari garatzeko aukerak galtzen direla, eta nola ez, gaitasun handiko pertsonak bidetik geratzen direla. Hots, gaitasun artistikoak, naturalistak ... edo beste gaitasun mota bat garatuago duten pertsona askori eskolatik ateak itxi egiten zaizkie, geroago haien interesekin eta gaitasunekin bat egingo duten ikasketak burutzeko bideak murriztuz.

Hau horrela ez izateko, garrantzitsua da adimen mota guztiak arakatzea eta pertsonok egiten ditugun adimenen konbinaketa ezberdinekin aberastea. Egiten ditugun adimenen konbinaketei esker, pertsona bakoitza ezberdina eta bakarra baita. Hau onartzen badugu, munduan suertatzen diren arazoei aurre egitea errazagoa izango zaigu, eta beharbada, bizitzarekiko konpromisoa zein motibazioa piztuta mantentzea posiblea izango litzateke, horrela, orokorrean hobeto sentituz eta ondorioz, zoriontsuago biziz.

Azken finean, aldarrikatzen dudan gizartea zein hezkuntza sistema, guztiok barne hartzen gaituen ikuspegi inklusiboa da. Non guztiok guztiongandik ikasiz, bakoitzaren garapena errespetatu eta ziurtatzen den.

Gardner-ren proposamena etengabeko berrikuspenean eta moldaketan dagoela esan beharra dut. Teoria honen ondorioak zehaztear daude oraindik, hala ere, ez dugu ahaztu behar, Adimen Anitzen teoria honen inguruan oraindik ere asko sakondu behar dela, batez ere, teoria hau praktikan jartzeari dagokionez. Aristotelesek esan zuen moduan:

*“Ikasi behar duguna, eginez ikasten dugu”*


## 5.- Erreferentziak

- Amarís, M. (2002). Las múltiples inteligencias. Redalyc. *Psicología desde el Caribe*. 10.zb. 27-38 orrialdeak. Ikusgarri: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=21301003> [Kontsulta 2014/05/30/]
- Armstrong, T. (1999). *Las inteligencias múltiples en el aula*. Argentina, Manantial.
- Ander-Egg, E. (2007). Claves para introducirse en el estudio de las inteligencias múltiples. Argentina, HomoSapiens.
- Ausubel, D. (1978). Teoría del aprendizaje significativo. Ikusgarri: [http://delegacion233.bligoo.com.mx/media/users/20/1002571/files/240726/Aprendizaje\\_significativo.pdf](http://delegacion233.bligoo.com.mx/media/users/20/1002571/files/240726/Aprendizaje_significativo.pdf) [Kontsulta 2014/06/05/]
- Castillejo, B. (2013). Adimen anitzen teoria. Ikusgarri: <http://es.slideshare.net/bertacastillejo/inteligencias-mltiples-29015902> [Kontsulta 2014/06/7/]
- Cabrera, A. (2006). *Lengua, aprendizaje y enseñanza; el enfoque comunicativo de la teoría práctica*. Limusa editoriala.
- Casarea, J. (1992). *Diccionario ideológico de la lengua española: De la idea a la palabra, de la palabra a la idea*. Bartzelona, Gustavo Gili
- Etxebarria, P. (2013). Adimen anitzak. Leioako Berritzegunea. Ikusgarri: <http://es.slideshare.net/pilaretxebarria/adimen-anitzak-web> [Kontsulta 2014/06/07/]
- Flecha, R. (2010). Kalitatezko hezkuntza denontzat. *LARRUN pentsamendu aldizkaria* 26/09/2010, 146. Alea. Ikusgarri: [www.argia.com/larrun](http://www.argia.com/larrun) [Kontsulta 2014/05/17/]
- Fundación Universitaria Konrad Lorenz. (1991). Joy Paul Guilford. *Revista Latinoamericana de psicología*. Ikusgarri: <https://redpub2.files.wordpress.com/2009/05/paul-guilford.pdf> [Kontsulta 2014/06/02/]
- Gardner, H. (2000). *La educación de la mente y el conocimiento de las disciplinas; Lo que todo estudiante debería aprender*. Bartzelona, Paidós.
- Gardner, H. (1995). *Inteligencias múltiples; La teoría en la práctica*. Bartzelona, Paidós
- Gardner, H. (1994). *Estructuras de la mente. La teoría de las inteligencias múltiples*. Mexico, FCE.
- Gardner, H. (1993). *La mente no escolarizada; Cómo piensan los niños y cómo deberían enseñar las escuelas*. Bartzelona, Paidós.



- Gardner, H. (1987). *La nueva ciencia de la mente; Historia de la revolución cognitiva*. Bartzelona, Paidós.
- Gerber, R. & Robinson, K (2011). ¿Por qué los niños se aburren en la escuela? *Redes*, 88.zb. Ikusgarri: [https://www.youtube.com/watch?v=eEqF\\_1aXUw4](https://www.youtube.com/watch?v=eEqF_1aXUw4) [Kontsulta 2014/04/19/]
- Goleman, D. (2002). Inteligencia emocional. Ikusgarri: <http://www.editorialkairos.com/autores/goleman-daniel> [Kontsulta 2014/06/03/]
- Guerrero, F. (2006). Inteligencias múltiples. Ikusgarri: [www.monografias.com/trabajos12/intmult/intmult.shtml](http://www.monografias.com/trabajos12/intmult/intmult.shtml) [Kontsulta 2014/05/14/]
- Robinson, K. (2011). El sistema educativo es anacrónico. *Redes*, 87.zb. Ikusgarri: [https://www.youtube.com/watch?v=V7iiR\\_gz6y8](https://www.youtube.com/watch?v=V7iiR_gz6y8) [Kontsulta 2014/04/19/]
- Robinson, K. (2011). Cambiando paradigmas. *Redes*, 89.zb. Ikusgarri: <https://www.youtube.com/watch?v=fkBzLlYlc64> [Kontsulta 2014/04/19/]
- Luca, S. (2007). El docente y las inteligencias múltiples. *Revista Iberoamericana de Educación*. Ikusgarri: [www.rieoei.org/deloslectores/616Luca.PDF](http://www.rieoei.org/deloslectores/616Luca.PDF) [Kontsulta 2014/05/17/]
- Sanz de Acedo, M. (2000). Adimen Aniztasunaren teoria: hezkuntza jomuga. *Hik Hasi aldizkaria*. Ekaina. 51. Alea. Ikusgarri: <http://www.hikhasi.com/artikulu/598> [Kontsulta 2014/05/30/]
- Oihartzabal, L. (2003). Adimen mota ezberdinak. *Hik Hasi aldizkaria*. Ekaina. 11. Monografikoa. PDF
- Piaget, J. (1952). Concepto de la inteligencia. Ikusgarri: <http://tesinatamayosilva.blogspot.com.es/2012/06/jean-piaget-concepto-de-la-inteligencia.html> [Kontsulta 2014/05/31/]
- RAE. (2014). Ikusgarri: <http://www.rae.es/> [Kontsulta 2014/05/11/]
- Santana, A. (2007). Louis Leon Thurstone. Universidad Nacional de Colombia. Colombia.
- Spearman, C. (1904). Factor G de inteligencia. Ikusgarri: <http://www.fragmentoscoetaneos.com/2013/09/factor-g-de-inteligencia-segun-charles.html> [Kontsulta 2014/06/02/]


# ERANSKINAK



## 1.- Eranskina: Howard Gardner-ren biografia:

Howard Gardner, 1943ko uztailaren 11an Scraton-en jaio zen, Pensilvania AEB. Psikologiako zientzialari garaikidea da, bereziki adimenarekin zerikusia duten gaietan.

1938an Gardnerren gurasoek Alemaniatik alde egin behar izan zuten, judutarrak baitziren.



Txikitan Gardner, musikan oso trebea zen eta piano jole profesional bihurtzea pentsatu omen zuen gaztetan. 1961ean Harvard-eko unibertsitatean sartu zen, batez ere, historia ikasteko asmoarekin. Urteak joan ahala, iritziz aldatu eta bere ikasteko ildo nagusia giza harremanetara bideratu zuen, hau da, psikologia, soziologia eta antropologiaren arteko nahasketa. Psikologia terapeutikoan interes berezia omen zeukan garai haietan. Hala ere, Jerome Bruner psikologoa ezagutu eta Jean Piaget-en idazlanak irakurri eta gero, bere interesgunea berriro ere aldatu zuen. Doktore izateko ikasi zuen eta gero Harvard-en 1971an Unibertsitate horretan bertan geratzea erabaki zuen.

1967an, Nelson Goodman-ekin batera, “Project Zero” izeneko ikerketa taldea antolatu zuen. “Project Zero” ikerketa taldea arteen irakaskuntza sistematikoki aztertzea zuen helburu, bai sorkuntza artean baita beste arlo humanistiko eta zientifikoetan ere.

Bere ikerketa zientifikoak honako eremutan zentratzen dira: giza adimenari buruzko azalpen berriak egitea, Adimen Anitzen teoria hezkuntza sisteman ezartzeko estrategiak bilatzea, gaitasun kognitibo desberdinen garapenera zuzendutako programak sortzea eta kasu bereziak ikertzea.

Psikologo honen argitalpenek bultzada handia eman diote ezagutza zientifikoaren aurrerapenari, izan ere, 500 artikuluko baino gehiago idatzi ditu kalitate handiko aldizkarietan zein izen handiko argitaletxeetan. Momentuz 19 lanen egilea da, besteak beste:

- *Frames of Mind* (1983), adimenari buruz pentsatzeko era aldatu zuen komunitate zientifikoari bere Adimen Anitzen teoria lehenengo aldiz azalduz.

- *Creating minds* (1993), zazpi pertsona berezi aztertzen ditu -Freud, Einstein, Picasso, Stravinsky, T. S. Eliot, Grahan eta Gandhi- horietako bakoitza adimen baten eredu delarik, eta sormenari buruzko ikuspuntu berria aurkezten du.
- *Multiples intelligences: Theory in practice* (1993), bere lan osoaren sintesia da, argitaratutako materialak zein lan orijinalak biltzen ditu, eta hezkuntzan egindako bere teoriaren aplikazio garrantzitsuenak laburtzen ditu.
- *Leading minds* (1995), lider politiko handien, enpresarien eta militarren burmuinaz hitz egiten du, eta denei eraginkortasunez jokarazten dieten ezaugarri psikologiko komunak identifikatzen ditu.
- *Intelligence reframed: Multiple intelligences for the 21st century* (1999), adimen kopurua gehitzen du.

1981ean, MacArthur Prize saria eman zioten. Egun, Harvard eta Bostongo Unibertsitatean irakasle giza aritzen da.

## 2.- Eranskina: Adimenen hobekuntzarako programa psikohezitzaileak

Gardner eta berarekin batera lan egiten duten “Zero Proiektuko” lan taldeak Adimen Anitzen teoriaran oinarritutako zenbait programa psikohezitzaile garatu dituzte, *Spectrum*, *Arts PROPEL* eta *Practical Intelligences for School* azpimarragarrienak direlarik. Denek gauza bera defendatzen dute, hau da, adimenaren jatorria ez dela finkoa, beraz, programa hauen bidez estimulatu eta hobetu egin nahi dute.

Hona hemen programa horietako bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenak (Gardner, 1989, 1995; Sanz de Acedo, 2000):

### **Spectrum Proiektua:**

Proiektu honen helburua Haur Hezkuntzako ikasleen adimen anitzak identifikatzea eta curriculumera egokitutako ekintzen bitartez ebaluatzea da. Spectrum hitzak hori islatzen du, hau da, lortutako informazioarekin 3 eta 6 urteko haurren adimen aniztasuna errekonozitzea, modu honetan, etapa amaieran haur bakoitzaren lehen profil kognitiboa egin ahal izateko. Profil horretan haurren adimen indartsuak eta ahulak nola dituen zehaztuko da.

Proiektu hau, 1984an sortu zen eta esperimentu modura arrakastaz ezarri zen zenbait ikastetxe amerikarretan. 1998an honen inguruan hiru bilduma argitaratu ziren, bertan oinarri teorikoak, ekintzak, ebaluaketa gidak eta ateratako emaitzak biltzen direlarik.

Spectrumen, ekintzak eta behaketarako gidak dira ezaugarri bereizgarrienak. Ekintzak adimenari lotutako zortzi sailetan taldekatuta daude: mugimendua, matematikak, hizkuntza, natur zientziak, gizarte zientziak, irudi artea, zientzia mekanikoak eta musika. Ekintzak arazo errealei erantzuten die eta irakaslea ikasleen desberdintasun indibidualetara molda dadin informazioa ematen dute. Gainera, errendimendu maila igotzeko jolas libreak eta lan egituratuak eskaintzen ditu. Haurrek material ezberdinak manipulatzeko aukera ona da eta aldi berean, praktikan jartzen diren gaitasunak ebaluatzeko testuinguru egokia sortzen dute.

Ekintza horiek zabaltasuna ematen die curriculumari, ez baitira kalkulua, irakurketa eta idazketa garatzeaz soilik arduratzen, baizik eta behatzeko interesa pizteaz, esanahiak eraikitzeaz, oharrak sortzeaz, objektuak produzitzeaz, besteekin ideiak konpartitzeaz ... ere arduratzen dira. Horrez gain, auto-estimua, errespetua eta jarrera moldakorra

bultzatzen dute. Ekintza bakoitzaren programaketan, gaiaren sarrera, burutu behar diren gaitasun garrantzitsuen definizioa, helburuen zerrenda, behar diren materialen zerrenda, ekintzaren azalpena pausu-pausu eta ebaluazioaren gaineko argibide batzuk sartzen da. Gurasoak haurren ikaskuntza prozesuan inplika daitezten, etxean egiteko zenbait lan gomendatzen dira ere.

Spectrumen, aipatu bezala, behaketarako gidak ere azpimarragarriak dira. Irakasleek ikasleen jokaeren oharrak hartzeko metodoa da. Gida hauek, aurretik ezarritako kriterioen arabera, informazioa kualitatiboki zein kuantitatiboki interpretatzeko aukera ematen dute.

Ez dira zertan tresna biak batera erabili behar, hots, ekintzak eta behaketa gidak, baina batera erabiltzen direnean irizpide osatuagoa eskaintzen dute gaitasunen garapenaren, emaitza akademikoen eta egindako profilaren zehaztasunaren inguruan. Proiektu honekin esperientzia izan duten hezitzaileek baieztan dute oinarrizkoa dela haurren gaitasun indartsuak eta ahulak, interesak eta jarrerak identifikatzea eta dokumentatzea zailtasun akademikoetan eta arazo pertsonaletan lagundu ahal izateko (Campbell, 1992).

### **Arts PROPEL Proiektua:**

Arts PROPEL proiektua Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago eta Arteen eta Humanitateen inguruan hainbat lan ekoizten, hautematen eta hausnartzen irakastea helburutzat du. Hiru helburu horiek PROPEL izenean biltzen dira. PRO, production, ikasleen sormen potentzialaren garapena, batez ere, literaturan, musikan eta plastikan. PE, perception, hots, hautematea, eta azkenik L, learning, hau da, ikasketa, prozesu honen bidez heziketa helburuak lortzen direlarik.

Programa honen ezaugarri aipagarrienak hauek dira: lan akademikoa proiektu forman antolatzea, paper zorroak erabiltzea eta dimentsio anitzeko ebaluazioa burutzea. Ikasleek ez dute lan konkretuen gainean lan egiten, gai edo arazo garrantzitsu bat lantzen duten proiektuetan baizik. Irekia eta erakargarria da ikasleentzat, eta eskolako ekintza guztiak proiektu horren inguruan lantzen dituzte sei astetan. Proiektuek hiru ezaugarri eduki behar dituzte: artistikoa den zerbaiten produkzioa (idatzi, konposatu, marraztu, margotu ...); artisten lanen analisiak, eta lan horri buruzko hausnarketa pertsonala.

Ikasketa eredu honek prozesua zein emaitza indartzen du. Izan ere, ikasleek beraien ezagutza propioaren eraikuntzan modu aktiboan parte hartzen dute, eta aldi berean arrazoitzen ikasten dute. Lan artistikoaren gakoak eta zailtasunak ezagutzen dituzte, eta horren garrantziaz jabetzen dira. Proiektuen eredu esanguratsuak barneratzea ahalbidetzen du eta etengabe gauzak asmatzera bultzatzen du ikaslea. Hau da, zerbait sortzera, egindakoaz pentsatzera, gauza berriak bilatzera eta hartutako erabakiak onartzera. Lan eredu horrek errepasatzeko, esperimentatzeko eta ikertzeko aukera ematen du, eta aldi berean, irakasleek eta ikasleek euren lana ebaluatzeko ere.

Paper zorroa erabiltzen duten beste baliabideetako bat da. Hezkuntzaren ikuspegi konstruktibistatik begiratuta, paper zorroa lanen bilduma baino zerbait gehiago da: Hots, helburu, ikasgai, ekintza, dokumentu, esfortzu, ebaluazio irizpide eta lorpenen bilduma da. Proiektu honen barnean, paper zorroak ikasketa prozesua, zirriborroak eta lan bukatuak biltzen ditu. Gainera, irakasleek eta ikasleek euren ekintzei buruz egindako ahozko nahiz idatziko hausnarketak ere barne hartzen ditu.

Proiektu honetan, ebaluazioa ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko atal bat bezala ulertzen da eta modu formal nahiz informalean egiten da.

### **Practical Intelligence for School (PIFS)**

Programa honen helburu nagusia, ikasleei eskolan eta gizartean arrakasta izateko behar dutena irakastea da.

PIFSren curriculumak bost zati ditu: sarrera, irakurketa, idazketa, lanak eta ebaluazioa. Zati horiek ikasleak eskolako lanen metodologia ulertzera, beraien ikaskideekiko elkarlana hobetzera eta burmuina eta portaera erregulatzera bideratuta daude. Proiektu honek hizkuntzaren, matematikaren, zientzien eta ikasketa sozialen edukiak aberasten ditu. Bai irakasleentzat eta bai ikasleentzat, eskolak dituen lanerako tresnak berberak dira, baina erabilpena desberdina da. Taldeko nahiz bakarkako egoera praktikoak lantzen dira, eta horien bidez ikasleek adimen anitzen erabilera egokia ulertzen dute. Programa 10-14 urteko ikasleentzat egin da.

### 3.- Eranskina: Elkarrizketa Lamiako Eskolako zuzendari ohiari

**Elkarrizketatua:** Adelaida O.I , Lamiako Eskolako zuzendari ohiari

**Eguna:** 2014- 05- 07

**Non:** Lamiako Eskolan, Leioan

Adelaida, 30 urtez irakaslea izan den emakume langile eta borrokalaria da. Hasiera batean, turismoko ikasketak burutu zituen, baina 31 urte zituela bere benetako senari kasu egin eta Irakasle-eskolako ikasketak amaitu zituen. Lehenengo urtetan Derio eta Berangoko ikastetxean lan egin zuen, eta 1994.urtean Lamiako ikastetxean hasi eta 16 urte geroago han bertan jubilatatu zen.

Lamiakon “Andereño Ade” bihurtu zen, eta ikasle zein gurasoen artean ezaguna egin zen, batez ere, komunitatearen aldeko lanak etengabe egiten ari delako. Hori dela eta, ikastetxeak aurrera egiteko hainbat lorpen eskuratu ditu.

Hau guztia dela eta, interesgarria iruditu zitzaidan adimen anitzen inguruan berarekin elkarrizketa bat izatea, modu honetan, proiektu berritzaile askoren aitzindari izan denaren iritzia jasotzeko aukera izango nuen. Luze ibili ginen hizketan, baina kasu honetan lan honetarako erantzun interesgarrienak batu ditut. Hona hemen elkarrizketan komentatutakoa:

#### 1.- Zein iritzi daukazu egungo hezkuntza sistemaren inguruan?

Gaur egungo hezkuntza sistema zaharkitua dagoela uste dut. Egia da, nire bizi esperientzia akademikoan zehar aldaketak eman direla, baina aldaketa hauek oso azalekoak izan direla deritzot. Gure gizartea asko aldatu da eta eskola aurretik joan beharrean atzean geratu da. Gure errealitatera egokituta ez dagoen hezkuntza eskaintzearen ondorio zuzenatariko bat, egun jasotzen dugun eskola porrota maila altua da. Egoera hau onartezina da. Hezkuntza guztiontzako derrigorrezkoa bada, guztiei erantzun eta bakoitzaren gaitasunak garatzeko aukerak luzatu behar ditu. Informazio gizartean aurkitzen gara, ez industrialean, beraz, interesak eta beharrak ez dute zer ikusirik eskaintzen denarekin. Gure eskolei salto hau emateko ordua orain dela urte batzuk atzera heldu zitzaion.



## **2.- Adimen anitzak ditugula sinesten al duzu?**

Noski baietz, gainera hori frogatuta dago. Eskolan akademikoki ikasle txarrak kontsideratu diren pertsona asko, ondoren haien bizitzan zehar preziatuak bilakatu dira, baita jenioak kasu batzuetan ere. Bestalde, pertsona ugari ezagutu ondoren, pertsona batzuk oso onak direla gauza batzuetan eta beste batzuetan ez konturatu naiz. Adibidez, akademikoki ikasle oso onak zirenak baina besteekin erlazionatzean aldiz, nahiko traketsa. Hortaz, norbait inteligentea den galdetu baino, zertan den inteligentea galdetu beharko genuke.

## **3.- Uste duzu eskoletan adimen mota guztiak baloratu eta landu egiten direla?**

Ez. Ez dira guztiak lantzen ezta modu berdinean baloratzen ere. Adimen logiko-matematikoa eta linguistikoa dira gehien landu eta baloratzen direnak. Adimen zinetikoa, espaziala eta sormena hor daude, eta beste guztiak ahaztuta ditugu. Noizbait ikusi al duzu ikasle batek bikain ateratzea besteekiko dituen erlazioen ikasgaietan? Beharbada Haur Hezkuntzan gehiago zaintzen den kontua da, baina hazten goazen heinean, bai familiak baita irakasleak ere ikasgai akademikoei ematen diegu garrantzi handiena. Hau egitean, pertsona barneko adimena alde batera uzten da eta adimen sozialak garrantzia galtzen du. Hain zuzen ere, derrigorrezko hezkuntzak bermatu beharko lituzkeen adimenak.

## **4.- Adimen mota guztiak ez lantzea ezta baloratzea ere zein ondorio ekartzen ditu?**

Lehenengo ondorioa, bi talde egiten direla da: balio dutenak eta porrota jasotzen dutenak. Hau da, pertsona akademikoak eta ez akademikoak.

Bigarren ondorioa, adimen guztiak ez baloratzean, bizitza praktikorako zein gozatzeko balio duten gaitasun ugari garatzeko aukerak galtzen direla.

Hirugarren ondorioa, gaitasun handiko pertsonak bidetik galtzen direla da. Hots, gaitasun artistikoak, naturalistak ... edo beste gaitasun mota bat garatuago duten pertsona askori eskolatik ateak itxi egiten zaizkie, geroago haien interesekin eta gaitasunekin bat egingo duten ikasketak burutzeko bideak murriztuz.

## **5.- Zuk lan egindako ikastetxeetan ikasleen adimen anitzak baloratzeko eta lantzeko zerbait egin duzue? Zer?**

Bai, hala ere, ez nik nahi izan dudan beste, oraindik ere filosofia honekin bat egiten ez duen derrigorrezko arau batzuk jarraitu behar baititugu.

Pertsona barneko adimena adibidez asko landu dugu, errespetu eta askatasunez beteriko giroa sortuz. Guztiok seguru sentitzea eta bakoitzak bere pentsamenduak adieraztea, partekatzea ... gure helburu nagusietako bat izan delarik.

Adimen soziala ere oso preziatua izan da Lamiakon, izan ere, eskola txikia izanda ezinbestekoa da denon artean ezagutzea, ikastea eta zaintzea.

Lamiako Eskola Ikas Komunitate proiektuan sartuta dago, beraz, gure filosofiak bat egiten du Adimen Anitzen teoriak dioen gauza askorekin. Horregatik, jarduera arrakastatsuak erabiltzen ditugu adimen mota guztiak garatzeko aukerak luzatzeko eta guztiok guztiongandik ikasteko. Hauen artean, talde elkarreragileak, solasaldi dialogiko literarioak, jardunaldi gastronomikoak ...

Esandakoaz gain, eskolak irekiak izan behar direla uste dut. Irekiak bai aldaketak egiteko orduan, baita gizarteak ematen dizkigun baliabideak aprobetxatzeko. Bizitzea ikastea da, eta denok bizitza osoan zehar ikasten dugu.

#### **4.- Eranskina: Adin anitzetako pertsoneri egindako galdetegia eta emaitzak**

Hurrengo galdetegi honetan, adimen anitzak lantzeko 15 jarduera ezberdin proposatzen dira. Galdetegia egiten duten pertsonak, hauetatik gustukoak dituzten 5 aukeratu behar dituzte.

Galdetegi honen helburua, zein adimen motak diren gehien gustatzen zaizkigunak jakitea da, hau da, zeintzuk diren gure bizimodua alaitzen dizkigutenak eta eroso zein motibatuak sentiarazten gaituztenak.

Galdetegiaren ostean, ikerketa txiki honen emaitzak taula eta grafikoen bidez batu eta aztertuko dira.

Hau azalduta, hona hemen 40 pertsoneri luzatutako galdetegia:

#### **Adimen Anitzen inguruko galdetegia**

Irakurri 15 jarduera hauek eta aukeratu gehien gustatzen zaizkizun 5tak.

- 1. Jarduera:** Hiru lagunen artean abesti bat kantatu.
- 2. Jarduera:** Bi lagunen artean hurrengo irudi hau kopiatu:



- 3. Jarduera:** Aukeratu 5 landare edo lore mota ezberdin eta bere izen zuzenak eman.
- 4. Jarduera:** Jolastokira korrika joan, bi harri bilatu eta klasera itzuli hurrengo taldea jarraitu dezan.
- 5. Jarduera:** Zuzenkirik erabili gabe, ikasgelaren planoan egin.
- 6. Jarduera:** Eskolan bizi izandako esperientziaren inguruan 10 lerro idatzi.

**7. Jarduera:** Ariketa hauek burutu:

- Zein da erantzun egokia?

$$CAACCAC = 3113313 \iff CACAACAC = ?$$

- 13133131
- 13133313
- 31311131
- 31311313

- Burutu:

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 3 |   |   | 7 |   |   |   |   |
| 6 |   |   | 1 | 9 | 5 |   |   |   |
|   | 9 | 8 |   |   |   |   | 6 |   |
| 8 |   |   |   | 6 |   |   |   | 3 |
| 4 |   |   | 8 |   | 3 |   |   | 1 |
| 7 |   |   |   | 2 |   |   |   | 6 |
|   | 6 |   |   |   |   | 2 | 8 |   |
|   |   |   | 4 | 1 | 9 |   |   | 5 |
|   |   |   |   | 8 |   |   | 7 | 9 |

**8. Jarduera:** Prestatu aurkezpen bat, ingelesez edo frantsesez zure taldeko kideentzako.

**9. Jarduera:** Hurrengo galderari ahoz erantzun.

- Zeri diozu beldurra?
- Zerk egiten zaitu zoriontsu?
- Zerk jartzen zaizu triste?


**10. Jarduera:** Ebatzi kalkulagailurik erabili gabe.

- $((9 \times 9) + 10 + 9) / 10 =$
- $((((145 \times 5) / 25) + 4) \times 13 =$
- $1056 \times 88 =$
- $155584 / 88 =$

**11. Jarduera:** Bi pertsona edo gehiago artean gustukoen duzuen dantza mota dantzatu.

**12. Jarduera:** Inguruan dauden objektuekin erritmo bat sortu.

**13. Jarduera:** Hurrengo animali hauek izendatu.



**14. Jarduera:** Lagun batek ez du azken azterketa gainditu. Berarekin hitz egitean negarrez hasi da. Nola sentitzen naiz ni? Deskribatu zure sentimenduak.

**15. Jarduera:** Irtenaldi bat egiteko klasekoak konbentzitu.

|  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|
|  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|

**Galdetegiaren datu bilketa**

| Ekintzak   |                | 1  | 2  | 3  | 4  | 5 | 6  | 7 | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |   |
|------------|----------------|----|----|----|----|---|----|---|----|----|----|----|----|----|----|----|---|
| Adina      | Pertsona       |    |    |    |    |   |    |   |    |    |    |    |    |    |    |    |   |
| 16-30 urte | 1              |    |    |    | X  | X |    | X |    |    | X  |    | X  |    |    |    |   |
|            | 2              |    |    | X  |    | X | X  | X |    |    | X  |    |    |    |    |    |   |
|            | 3              |    | X  | X  |    |   | X  |   |    |    |    |    | X  | X  |    |    |   |
|            | 4              | X  |    | X  |    |   |    |   |    |    |    |    | X  | X  |    | X  |   |
|            | 5              |    | X  |    | X  |   |    | X |    | X  |    |    |    |    |    | X  |   |
|            | 6              |    | X  |    | X  |   |    | X | X  |    |    |    |    |    |    |    | X |
|            | 7              |    | X  |    |    |   |    |   | X  | X  |    | X  |    |    |    |    | X |
|            | 8              | X  |    |    |    |   | X  |   |    | X  | X  |    | X  |    |    |    |   |
|            | 9              | X  | X  |    |    |   |    |   | X  |    |    |    |    |    | X  | X  |   |
|            | 10             |    |    | X  | X  |   |    |   |    | X  |    | X  |    |    |    | X  |   |
|            | 11             | X  |    |    | X  |   | X  |   |    |    |    | X  |    |    |    |    | X |
|            | 12             |    | X  |    | X  |   |    |   |    | X  | X  |    | X  |    |    |    |   |
|            | 13             |    | X  |    |    |   | X  |   | X  |    |    |    | X  |    |    |    | X |
|            | 14             |    |    | X  |    |   |    |   | X  |    | X  |    | X  |    |    |    | X |
|            | 15             |    | X  |    |    |   | X  |   | X  |    | X  |    |    |    | X  |    |   |
| 31-45 urte | 16             |    |    |    |    |   |    | X |    | X  | X  | X  | X  |    |    |    |   |
|            | 17             | X  |    | X  |    |   |    |   |    |    |    | X  |    | X  |    | X  |   |
|            | 18             | X  | X  |    |    |   | X  |   |    |    |    | X  |    |    |    | X  |   |
|            | 19             |    | X  |    |    |   | X  |   | X  | X  |    |    |    |    |    | X  |   |
|            | 20             |    | X  |    |    |   | X  |   | X  | X  |    |    |    |    | X  |    |   |
|            | 21             |    |    |    | X  |   |    | X |    | X  |    | X  | X  |    |    |    |   |
|            | 22             |    |    | X  |    | X |    |   | X  |    | X  |    |    | X  |    |    |   |
|            | 23             | X  |    |    | X  |   |    | X |    |    | X  |    | X  |    |    |    |   |
|            | 24             |    |    | X  | X  |   |    |   |    | X  |    | X  |    | X  |    |    |   |
|            | 25             | X  |    |    | X  |   | X  |   |    | X  |    |    | X  |    |    |    |   |
|            | 26             |    | X  | X  |    |   | X  |   |    |    |    |    | X  |    |    | X  |   |
|            | 27             |    |    |    | X  | X |    |   |    |    |    | X  | X  |    | X  |    |   |
|            | 28             |    | X  |    |    | X |    |   |    | X  |    |    | X  | X  |    |    |   |
|            | 29             | X  |    | X  | X  |   |    |   |    |    |    |    | X  |    |    | X  |   |
|            | 30             | X  |    |    |    |   |    |   |    | X  |    |    | X  |    |    | X  | X |
| >46 urte   | 31             |    |    |    |    |   | X  |   | X  | X  | X  |    |    |    |    | X  |   |
|            | 32             |    |    | X  | X  |   |    |   |    | X  |    |    |    | X  | X  |    |   |
|            | 33             | X  |    |    | X  | X |    | X |    |    |    |    | X  |    |    |    |   |
|            | 34             |    | X  |    |    |   |    | X |    |    | X  |    |    |    | X  | X  |   |
|            | 35             | X  |    |    |    |   | X  |   |    | X  |    |    | X  | X  |    |    |   |
|            | 36             | X  |    |    | X  |   |    |   | X  |    |    | X  |    |    |    | X  |   |
|            | 37             |    | X  | X  |    |   | X  |   | X  |    |    | X  |    |    |    |    |   |
|            | 38             |    |    | X  |    |   | X  | X |    |    | X  |    |    | X  |    |    |   |
|            | 39             |    |    | X  |    |   |    | X |    | X  | X  |    |    |    |    | X  |   |
|            | 40             | X  |    |    | X  |   |    |   |    | X  |    |    |    |    | X  | X  |   |
|            | <b>GUZTIRA</b> | 14 | 16 | 12 | 20 | 7 | 14 | 8 | 12 | 19 | 11 | 12 | 21 | 11 | 10 | 16 |   |

Adin ezberdinetako 40 pertsoneri galdetu ondoren eta datuak bilduta zein aztertuta, hona hemen azken emaitzak, hau da, 5 jarduera aukeratuenak eta hauekin lantzen diren adimen ezberdinak.


| Gehien aukeratutako jarduerak   | Lantzen den adimen mota   | Pertsona kopurua |
|---|---------------------------|------------------|
| <b>2. Jarduera:</b> Bi lagunen artean hurrengo irudi hau kopiau.  | Adimen espaziala          | 16               |
| <b>4. Jarduera:</b> Jolastokira korrika joan, bi harri bilatu eta klasera itzuli hurrengo taldea jarraitu dezan.                  | Adimen zinetiko-korporala | 20               |
| <b>9. Jarduera:</b> Hurrengo galderei ahoz erantzun: Zeri diozu beldurra? Zerk egiten zaitu zoriontsu? Zerk jartzen zaizu triste? | Pertsona barneko adimena  | 19               |
| <b>12. Jarduera:</b> Inguruan dauden objektuekin erritmo bat sortu.   | Adimen musikala           | 21               |
| <b>15. Jarduera:</b> Irtenaldi bat egiteko klasekoak konbentzitu.   | Pertsonarteko adimena     | 16               |

Aukeratuak atera diren jarduerak aztertzen baditugu, jarduera hauekin lantzen diren adimen motak eskoletan gutxien baloratu eta lantzen direnak direla konturatzen gara. Orain arte eskoletan gehien landu direnak, adimen logiko-matematikoa eta linguistikoa dira, eta galdetegi honen arabera, gustukoenak ditugunak pertsonarteko adimena, adimen musikala, pertsona barneko adimena, adimen zinetiko-korporala eta espaziala dira.

Dirudenez, ikastera eta bizitzaz gozatzera gehien motibatzen gaituzten jarduerak dira, hezkuntza sisteman gutxien erabiltzen direnak. Nahiz eta jarduera hauen bidez lantzen diren adimenak, gure bizitza pertsonalerako zein profesionalerako hainbeste baloratzen diren beste biak bezain garrantzitsuak izan.

Hau horrela izanda, honen arabera, ondorio honetara heldu gaitzke: Gustukoen ditugun adimen motak eskolan gutxien baloratzen eta lantzen direnak dira.

Hala eta guztiz ere, 15 jardueretan batutako datuak aztertzen baditugu, pertsonak adimen mota guztiak erabiltzea gustuko dugula konturatzen gara. Izan ere, 40 pertsona hauen aukeraketa askotarikoa izan da, hots, denetarik aukeratu dute. Datu hau argiago ikusteko, hona hemen grafiko hau:




1. Grafikoa: Aukeratutako ekintzen kopurua, 2014eko maiatzean

Bestalde, arestian aipatu bezala, jasotako datuak galdetutako pertsonen adinaren arabera sailkatu dira. Sailkapen honen helburua, belaunaldi ezberdinen arteko ezberdintasunak aztertzea zen.

Datuak aztertzean, ezberdintasun batzuk aurkitu dira. Lehenengo bi taldeak (16-35 eta 36- 45 urte dituztenak) emandako erantzunak orokorrean nahiko antzekoak dira, eta beste taldea aldiz (46 urtetik aurrerakoak), nahiz eta ezberdintasun handirik ez den eman, emandako erantzunak ezberdinagoak izan dira. Aukeratu dituzten jarduerak beste motatakoak izan dira. Honen arrazoia, jasotako hezkuntza mota eta bizi izandako garaiaren ezaugarriak izan daiteke. Izan ere, ez da gauza bera egungo gizartean bizitzea edo orain dela 40.



Azaldutako datu hauek argiago ikusteko, hona hemen adinaren konparaketa egiteko grafiko hau:



2. Grafikoa: Adinaren arabera aukeratutako ekintzen kopurua, 2014eko maiatzean

Hortaz, emaitza hauen arabera, Adimen Anitzen teoria eskoletan integratzea erabaki aberatsa izan daiteke. Izan ere, adimen mota guztiak lantzean, pertsona guztiek bere alde indartsuak ateratzeko aukera izango lukete, eta baloratuagoa sentitzeaz gain, ikasteko motibazioa mantentzea errazagoa izango litzateke. Modu honetan eskola porrota gaindituz.

**5.- Eranskina: 60 pertsonari luzatutako galdera eta emaitzak**

Adimen anitzen inguruan gehiago ikertzeko asmoz, hurrengo galdera luzatu diet 60 pertsonari:

- Imagina ezazu telefono mugikor berria erosten duzula. Nola jarriko zenuke martxan?
  - a) Argibideak edo instrukzioak irakurriz.
  - b) Manipulatuz, hau da, botoi ezberdinei sakatuz martxan jartzen saiatzen zara.
  - e) Norbaiti galdetuz.

Ikerketa txiki honen helburua, pertsonak arazo berdina konpontzeko balio berdina duten bide ezberdinak erabiltzen ditugula baieztatzea da. Bide ezberdin hauen aukeraketa, bakoitzaren izaera eta gaitasunen arabera izan ohi da. Bestalde, bide bakoitzak adimen mota bat irudikatzen du.

Hau azalduta, hona hemen ikerketa honen emaitzak:

| Telefonoa martxan jartzeko aukerak       | Erantzundako pertsona kopurua |
|--|-------------------------------|
| a) Argibideak edo instrukzioak irakurriz | 15                            |
| b) Manipulatuz                           | 24                            |
| d) Norbaiti galdetuz                     | 19                            |

Datuak aztertzean, argi ikusten da nola aukera guztiak baliotsuak ziren. Galdetutako pertsonak denetarik erantzun dute eta kontuan izanda hiru aukerak arazoa konpontzen zutela, balio berdineko bideak direla esan daiteke. Arestian aipatu bezala, bide bakoitza adimen mota bat irudikatzen du, hortaz; zergatik eskoletan ez dira adimen mota guztiak modu berdinean baloratzen eta lantzen arazo berdina konpontzeko bide bat baino gehiago badago? Edo beste modu batera esanda: zergatik ez dira ikasteko modu ezberdinak errespetatzen helburu bera lortzeko bide anitzak badaude?

Emaitzek, Adimen Anitzen teoria eskoletan integratzea egokia dela adierazten dute.

## **6. Eranskina: Jarduera arrakastatsuen informazioa; talde elkarreragileak eta jardunaldia kultural-gastronomikoak**

Lamiako Eskolan praktikak egitean, adimen anitzak lantzeko zenbait jarduera interesgarri ezagutu nituen. Hona hemen ezagututakoen artean, hiru jarduera arrakastatsu hauen azalpena eta informazioa:

### **Jardunaldi kultural-gastronomikoak:**

Hiru hilabetetik behin, herrialde edo kultura ezberdinetako jardunaldi gastronomikoak egiten dituzte, eskolako guztiak parte hartuz, denok batera, gozatu, ikasi eta pertsonalki aberastu daitezten. Jardunaldi hauek prestatzeko, lehenengoz, eskolako familiei ea parte hartu nahi duten galdetzen zaie eta esaten dutenaren arabera, urte osorako egutegia antolatzen dute. Ondoren, jardunaldi eguna baino hilabete bat lehenago gutxi gorabehera, egokitzen den herrialdearen familiekin batzartu eta zein janari eta zein ekintza prestatuko dituzten erabakitzen da, hots, menua erabakitzeaz gain, haiek egingo dituzten ekintzak ere, adibidez, ipuinak, dantza tipikoak, janzkera mota erakutsi ... erabakitzen dira. Bestalde, irakasleek haien ikasgeletan, jardunaldia testuinguru batean sartzeko asmoz, aukeratutako herrialdeari buruzko hainbat lan mota ezberdin aurretik egiten dituzte. Normala denez, Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzakoek ez dute modu berean lantzen, batik bat, beharrezkoa delako adin bakoitzaren mailara egokitzea. Horregatik, txikiekin ipuin, jolas, eskulan eta komunikazioaren bitartez lantzen den bitartean, handiekin metodo hauez gain, baliabide gehiago erabiltzen dira, hauen artean, informazioa bilatzeko internet, muralak egiten dituzte, liburuak ...

### **Talde elkarreragileak**

Talde elkarreragileak egiteko 4-6 ikasle kopuruko taldeak egin behar dira (zenbat eta heterogeneoagoak izan hobe) eta gelan behar beste pertsona heldu sartzen dira. Hau da, talde bakoitzean heldu bat egongo da. Jarduera honetan, pertsona hau erreferentetzat hartuko da eta taldearen interakzioak dinamizatzeko zein animatzeko ere. Ikasle guztien partaidetza sustatzea ezinbestekoa da, haien artean arrazoituz eta elkartasuna bultzatuz. Ikasleen arteko interakzioak koordinatuko ditu ere baina emaitzan eraginik izan gabe. Heldu hauek, hezkuntzako profesionalak, kale hezitzaileak, gizarte laguntzaileak, boluntarioak edo familiakoak izan daitezke.

Talde kopurua eta prestatutako jardueren kopurua berdina izango da, hots, 4 talde badaude, gaitasun ezberdinak lantzeko 4 jarduera prestatuko dira. Jarduera hauek aurrera eramane baino lehen bakoitzaren denbora aurrez aurretik ondo zehaztu behar da, jarduera bakoitzari behar den denbora emanaz. Denbora pasatzen denean jarduera eten egingo da eta taldeek errotazioa egingo dute ekintza guztiak egin arte. Argi utzi behar da garrantzitsua ez dela emaitza jakitea, prozedura aurrera eramatea baizik. Hau da, jarduera taldean egitea, haien artean arrazoitzea, azaltzea, eztabaidatzea, entzutea, iritzia ematea ... azken finean denon artean ados jartzea edota iritzi ezberdinak agertzea, hots, guztiok guztionandik ikastea.